



## i.6. Numero komunztadura alokutiboetan: *-zki* (*v -it*)

Egilea: Ane Odria

Nola aipatu: Odria, Ane. (2022). Numero komunztadura alokutiboetan: *-zki* (*v -it*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=1&e=13&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

### Gako-hitzak

alokutiboak, numero komunztadura, pluralgileak

### Deskribapena

Euskaraz alokutiboak argumentu absolutiboari dagokion *-it-* pluralgilea hartzen dute forma iragankorretan.

(1a)	Nik ni.ERG	liburuak liburuak.ABS	ekarri ekar.PTCP	ditiat/ditinat (3ABS).PL.edun.ALLO.M/F.1SG.ERG
(1b)	Jonek Jon.ERG	liburuak liburuak.ABS	ekarri ekar.PTCP	ditik/ditin (3ABS).PL.edun.ALLO.M/F.3ERG

Hizkera batzuek, aldiz, *-zki-* pluralgilea darabilte, eta ez *-it-* (Zuazo 2014: 48).

(2a)	Nik	liburuak	ekarri	dizkiat/dizkinat
------	-----	----------	--------	------------------

	ni.ERG	liburuak.aBS	ekar.PTCP	(3ABS).PL.edun.ALLO.M/F.1SG.ERG
(2b)	Jonek	liburuak	ekarri	dizkik/n
	Jon.ERG	liburuak.ABS	ekar.PTCP	(3ABS).pl.EDUN.ALLO.M/F.3ERG

## Banaketa dialektala

Zuazok (2014: 48) dioenez, Gipuzkoako alderdi bateko berrikuntza da \**edun* aditzaren hitanoan *-zki-* pluralgilea erabiltzea *-it-* orokorraren lekuan. Hona hemen zenbait adibide:

(3a)	dizkiat/dizkiñat	‘ditiat/ditiñat’
	(3ABS).PL.edun.ALLO.M/F.1SG.ERG	
(3b)	dizkik/dizkin	‘ditik/ditin’
	(3ABS).PL.edun.ALLO.M/F.3ERG	
(3c)	dizkiogu/dizkionagu	‘ditiagu/ditinagu’
	(3ABS).PL.edun.ALLO.M/F.1PL.ERG	

## Datu-basearen emaitzak

Gipuzkoako eremu bateko berrikuntza izanik, erdialdeko euskalkietan aurkitzen da batez ere *-zki-* pluralgilea *-it-* pluralgilearen lekuan: Beizaman, Errenteria, Etxalekun (Imotz), Hernani, Irun eta Itsasondon. Oragarreko hizkeran ere (nafar-lapurterra) lekukotzen da *-zki-* predikatu iragankorretan.

## Aipamenak

Zuazo, Koldo. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.